

## **AZKUERI OMENALDIAREN IHARDUNALDIEI BURUZKO SARRERA HITZAK**

Eusko Ikaskuntzak eta Lekeitioko Udalak kultur ekintzak gauzatzeko lan-kidetza akordio bat sinatu zuten 2001eko martxoaren 2an Udalbatza Aretoan, kazetarien aurrean. Eusko Ikaskuntzaren aldetik Bizkaiko lehendakariordeak sinatu zuen, Anton Erkorekak, eta Lekeitioren izenean bertako lehenengo zinegotziak, Jaione Murelagak. Maite Garamendi artxibozainaren eta lerro hauen egilearen asmoak bateratzearen ondorioa izan zen berau, eta gerora Kultura zinegotzia ere atxikiko zitzaion, Andoni Seijo. Lana elkarrekin egiteko interes hau, María Díaz de Harok 1325ean Lekeitiorei forua eman zioneko 675. urteurrena ospatzearen ondorioz sortu zen. Bestetik, helburu hau bete ahal izateko Koro Murok Eusko Ikaskuntzaren bidez egin duen lana eskertu nahiko nuke.

Zeregin guztien artean lehengoak, Resurrección María de Azkue ospetsuari nolabaiteko omenaldi bat eskaintzea izan behar zuen, halaberharrez. Izan ere, joan den 2001eko azoroaren 9an, bere heriotzaren 50. urteurrena ospatuko zen. Lekeitiar hau 1864an jaio zen, Apaltoa kalean, María Díaz de Harok 1325ean emandako hiri gutunaren ondorioz sortutako hiriaren kale nagusietako batean. Bere etxetik metro gutxi batzuetara zegoen eskolan nautika ikasi zuen, gaur egun bere izena daraman kalean. Baina apaizgintzaren deia sentitu orduko, azkar baztertu zituen gaztetako arinkeria hauek. Gasteizko seminarioan egin zituen ikasketak, hantxe zegoela Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko lurralde historikoetako gotzaintegiaren egoitza, eta ondoren Salamancako Unibertsitatean Zuzenbide Kanonikoa ikasi zuen. Musikako ikasketak Brusela eta Koloniako kontserbatorioetan egin zituen. 1888an, Bizkaiko Diputazioak Bilboko Institutuan konbokatutako katedra bat irabazi ostean, lehia-kidetzat Sabino Arana Goiri eta Miguel de Unamuno izan zituela, euskera irakatsi eta ikertzeari ekin zion, eta 1918an eman zuen hurrengo pausua, Oñaitin ospatutako Eusko Ikaskuntzen I. Kongresuaren baitan hego Euskal Herriko lau Diputazioek Eusko Ikaskuntza eratzea erabaki zutenean. Era berean, euskara zaintzeaz arduratuko zen organo bat sortu zuten, Euskaltzaindia, 1919an autonomia eskuratuko zuena. Lau akademiko sortzaileen artean Resurrección María de Azkue daukagu, eta bertako lehendakari izango zen, 1951n hil arte.

Udalak eta Eusko Ikaskuntzak, gizabanako guztien interesekoa izango zen egitarau anizkoitz eta iradokitzaile bat prestatseari ekin genion. Bost puntu landu genituen: Resurrección María de Azkueren bizitza eta obrari buruzko hitzaldi ziklo bat; Santa María elizan Azkueren musika kontzertu bat; Eusko Ikaskuntzaren *Euskonews & Media* (143. zenbakia) aldizkari elektronikoan ([www.euskonews.com](http://www.euskonews.com)) ale berezi bat; erakusketa bat (*Azkue, erraldoi bakarti*

*eta berezia*), Euskaltzaindiaren ezinbezteko laguntzari esker, Maite Garamendi eta Iñaki Goiogana prestatua; eta hainbat ekintza ludiko: kantua afaria Amurizak alaitua; Meza Nagusia elizako koruak abestua eta lore eskeintza Azkueren hilobian; Azkueren omenezko plaka jarrituta Udal Areto Nagusian; Lekittokadak antzezlana R.M. Azkue Ikastolak antolatua; eta Oskorriren azken diskoa, *Vizcaya-tik ... Bizkaia-ra*, aurkestua. Omenaldia 2001eko azaroaren 9tik 25era bitartean eskaini zitzaion.

Aditu ospetsuak bildu ziren hitzaldiak emateko: Patri Urkizuk, UNEDeko irakasleak, *Azkue antzerkigile*-ri buruz mintzatu zuen; Mertxe García, Eusko Ikaskuntzako Folklore Saileko lehendakari ohiak, *Azkue: su faceta como músico y folklorista*-ri buruz; Ana Toledok, Deustuko Unibertsitateko Literatura irakasleak, *Azkue kontalari*-ri buruz; Jose Antonio Aranak, Euskaltzaindiako kideak, *Azkue: gizona eta garaia*-ri buruz; eta Itziar Lakak, Euskal Herriko Unibertsitateko Linguistika irakasleak, *Azkue gramatikari*-ri buruz. Aztetu ziren gaiak, Azkuek bere lanetan zehar gehien landu zituenak izan ziren: euskera, herri literatura, musika eta antzerkia. Musikaren arloari dagokionez, funtsezkoa izan zen Ángel Ugartebururen koordinazioa, Mertxe Garcíaekin batera partiturak hautatzeaz arduratu baita, eta, garrantzitsua goa dena, banda, koru eta instrumentu bakarlariek interpretatu ahal izateko egokitzapenak ere egin zituen. Prestatu zuen egitarau anizkoitzaren barruan, honako hauek hartu zuten parte: Lekeitioko udal bandak, Miguel Arrietak zuzenduriko txistulari taldeak, Aitor Olea organistak, Lekeitioko Santa María Elizaren Koroak, eta berak ere bai, tronpeta jotzen. Kontzertu honetan azalpen argitzaileak ere eman zituzten, Azkueren obra musikala gutxi ezagutzen dutenek ere dastatu ahal izan dezaten. Kontzertuak izugarrizko arrakasta eduki zuen.

Ihardunaldi hauen oroimena gal ez dadin eta jende guztiaren ahalegina sari dadin hitzaldiak, erakusketa eta kontzertua liburu batean argitaratzea erabaki dugu. Aditu, ikasle eta edonorren eskuetan jartzen dugun liburu hau, Azkueren bizitza eta lana ezagutarazteko lagundu nahiez eskaintzen dugun saiakera txiki bat besterik ez da. Gainera, testu honen bitartez ere Lekeitioko hurrengo belaunaldiek nola oroitzen eta errespetatzen ditugun gure herriko ondare kulturala jakingo dute. Baina, liburua argitaratzeko beste hiru artikulorekin osatzea erabaki dugu: bata, Juan Antonio Rubio-Ardanaz-ena (Eusko Ikaskuntzako Antropologia-Etnografia saileko lehendakaria) eta *Azkue folklorista y gran testamentario de la tradición popular vasca* izenburuarekin; bigarrena, Karlos Sánchez Ekizarena (Eusko Ikaskuntzako Folklore saileko lehendakaria) eta *El cancionero de Azkue desde una perspectiva etnomusicológica* izenburuarekin; eta hirugarrena, Natalie Morel-ena (Michel de Montaigne-Bordeaux III-eko Unibertsitateko irakaslea) eta *L'oeuvre lyrique de R.M. de Azkue* izenburuarekin.

Beste aldetik, omenaldi eta argitalpen honen bidez, Eusko Ikaskuntzak bere xede nagusienetako bat beteko du: dibulgazioa. Zentzu gutxi izango luke bertako bazkideek egiten dituzten ikerketek, bertatik ateratako ondorioak herritaren artean zabalduko ez balira, eta aipatzekoa da azkenaldian pausu

kualitatibo garrantzitsuak eman direla Azkueren inguruan egin diren doktore tesien bidez. Hori dela-eta, Azkueri zuzendutako omenaldi hau, eta batik bat hitzaldiak, erakusketa, *Euskonews & Media* aldizkari elektroniko ale berezia eta eskuetan daukazun liburua, elkarte zientifikoaren eta gizartearen artean komunikatzeko zubi emankor eta aproposa izango dugu. Beraz, gure ekarpen txiki honen bidez, XX. mendeko euskal kulturaren, eta bereziki euskera eta herri literatuaren arloan hain funtsezkoa izan den gizon honen inguruko ezagutzak hedatzen eta ulertarazten lagundu nahiko genuke.

Lerro hauek amaitu baino lehen, eskerrak eman nahiko nizkieke Resurrección María de Azkueren Omenaldi hau prestatzen lagundu diguten guztiguztiei, beren denbora baliotsua eskaintzeagatik, eta baita Lekeitioko Udalarí ere, gure herriko kultura herritaren artean bertan zabaltzeko hartu duen arduragatik.

Iñaki BAZÁN

*Eusko Ikaskuntzako Historia-Geografia saileko lehendakaria*